



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2009-10-11**

VI. URTEA 1.531. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Kolektorearen lanek erdiguneko trafikoan eragin handia izango dute

TOLOSA Nafarroa etorbideak eta bialak noranzko aldaketa izango dute; Rondilla kaleak sarrera mugatua izango du

EGOERA Lanen %40a burutu dute eta urtebete geratzen da amaitzeko; lanak «unerik zailenera» heldu dira >

12 urte eta gero Pilar Eguneko bertso saioa bihar, Tolosan.

Bengoetxea, Barriola eta Olazabal Lau t'erdikoan

LEITZALDEA Atzo hasi zen txapelketa > 7

San Estebango XXI. Herri Krosa izango da bihar goizean

TOLOSA Kultur Astearen baitan egingo dute > 6



KOLOREA ERREGINA DA

ALEGIA Encarna Megiak bere lanak jarri ditu jubilatuen tabernan > 4-5

Chevrolet Aveo Berria. Get Real.

Aveo 8.500€-tik aurrera

AVEO Chevrolet Aveo berria, eguneroko bizimoduaz gozateko auto egokia. ABS ERDekin, labe argiak, aireazko hegazkinak, aireko eta alboko aire poltsak, ISOFIX sukarriak, klimatizatzaile automatikoa, ordenagailua, alarma, irati-CDa erpilekin eta konexio lagungarria. (Homidura, bertsoen arabera). Azken baitan, egiazko mundurako behar duzun guttia. Chevrolet Aveo berria, egiazko bizimodurako diseinatua.

Claudio Elgoibar
Olaso Kalea, 25 - Seimontak, 902 345 121 - Telefono: 902 345 125
E-mail: claudio@claudio.es - www.claudio.es

Peio gurentzatuz Penintsulako eta Bazarrekoak hain 1.2 litroko (98.2), motorizazio joko, garbitze-eta promozio berei. Hobe eta hobe arloko ezarritako Kontsumo-erregulazioak (1999ko) 5.5-7.132 hain (litro) 100/100.



Euskarazko hainbat hedabideetako zuzendariak eta ordezkariak bat egin zuten atzo 'www.iragarkilaburrak.com' webgunearen aurkezpenari. GARI BERSALUZE

Hainbat hedabidek elkarlanean sortutako 'www.iragarkilaburrak.com' webgunea aurkeztu dute; egunero milaka bisitari eta astero 100.000 aleko zabalkundea du euskarazko iragarki laburren atariak.

Elkarlanak ehundutako ataria

ERREDAKZIOA

Euskarazko iragarki laburren atariak biltzen dituen webgunea aurkeztu zuten atzo Donostian hainbat hedabideetako arduradunek.

Ekainean, tokian tokiko hainbat herri aldizkariak, egunkariak eta agerkeriak, euskarazko iragarki laburren webguneak sortu zituzten, eta orain, azken hilabeteotan proiektuarekin bat egin duten kide berrieekin batera, guztiak batzen dituen webgune nagusia aurkeztu dute: www.iragarkilaburrak.com

Ehunka iragarki aurki daitezke bertan, hainbat ataletan sailkatuta, nahi dena erraz aurkitzeko biltzaile garatuekin, eskaintzaren, prezioaren, lekuaren eta beste hainbat aldagairen arabera.

Elkarlanak sortutako sarea

EKTren baitako Bertako Hedabideek garatu dute proiektua, eta bertako zuzendari Iban Arregik aurkeztu zuen atzo webgunea, Donostiako Doka kafe antzokian egindako agerraldian.

Arregiren hitzetan, «euskarak internet bidezko iragarki laburren merkaturaren ere egon behar zuten, eta hutsunea ikusita, horri ekin genion, beti ere sare zabala lortzeko modu bakarra elkarlanean aritzea zela ikusita». Ildo horretan, «aurretik herri aldizkariak eta egunkariak egindako bideari beste urrats bat gehitu nahi izan zaio orain, denak sare bakar batean bilduz». Arregiren arabera, «zenbait

proiektu aurera ateratzeko elkarlana beharrezkoa da, eta hau adibide nabarmena da. Bide honi ezin go genioke ekin atzean herri aldizkariak eta elkarteak, eskualdeetako egunkariak eta agerkeriak digitalak ez baleude. Horiek urteetan egin duten lana gabe, hau ezinezkoa litzateke».

Aurrean hainbat elkarte, aldizkari, egunkari eta hedabideetako ordezkariak zituela nabarmendu zuen hori Iban Arregik. Bertan ziren, besteak beste, *Barren*, *Eta Kितto*, *kazeta.info*, *Goienkaria*, *Berria*, *Txintxarri*, *ukberri.net*, *Uztarrria* eta zazpi *Hitza* egunkarietako zuzendariak eta ordezkariak.

Herri komunikabideek lehendik egindako bidea

Horien artean, *Goienkaria*-ko eta *Berria* egunkarietako zuzendariak hartu zuten hitza, Eneko Azkara-

AURKEZPENA, AZKEN BERRIKUNTZEKIN BATERA

Hainbat herri aldizkari, egunkari eta agerkerien iragarki laburren atari guztiak biltzen dituen www.iragarkilaburrak.com webgunea ekainean abiarazazi baldin bazuten ere, orain aurkeztu dute, proiektuarekin bat egin duten bidelagunekin eta webgunearen azken berrikuntzekin batera.

Interneteko proiektuak sortzen eta garatzen dituen EKTren baitako Ehuntzen enpresa arduratu da webgunea sortzeaz, eta ekainaz geroztik hobetu beharreko kontuak fintzeaz.

Orain, webgunea aurkeztearekin batera, erabiltzaileentzat erosoagoak izango diren bitartekoak ere gehitu dizkiote webguneari. Batetik, iragarki bakoitza mapan kokatuta ageri da, etxe bat erosi behar duenak edo saldu nahi duenak, esaterako, etxebizitza non dagoen zehaztuta izan dezan. Era berean, webgunean sartzen diren iragarki berriei buruzko abisuak jaso ditzake erabiltzaileak, aldeaz aurretik erregistratu eta zein ataleko iragarkien abisua jaso nahi dituen zehaztu ondoren.



Iragarkietan eskaintzen dena mapa batean kokatuta ere ikus daitezke.

tek eta Martxelo Otamendik, hurrenez hurren.

Herri komunikabideek lehendik ere iragarki laburren merkaturaren egindako bidea nabarmendu zuen Eneko Azkara-tek. Zehazki, *Goienkaria*-k euskarazko iragarki

laburrak bilduz eta argitaratuz zortzi urte daramatzala eta urte horietan guztietan irakurleak iragarkiak euskaraz jartzera eta ikustera ohitu direla gogoratu zuen.

Elkarlana

Hori entzunda, *Berria* egunkarietako zuzendari Martxelo Otamendik, zoriondu egin zituen «lehen belaunaldiko, bigarren belaunaldiko eta hirugarren belaunaldiko gurasoak», eta egitasmo honen garrantzia, euskararentzat esparru berriak zabaltzeaz gain, euskarazko hogeita hiru komunikabide elkarlanean aritzeko elkartu izana dela esan zuen. «Ez dut uste gaurkoa bezalako argazkirik erakusteko gai izangarenik».

Ildo horretan, iragarki laburren azokaz haratago, etorkizuneari ere elkarlanean urrats berriak egiteko beharra nabarmendu zuen.

» IRAGARKI LABURRAK

Euskarazko iragarki laburren atariak honako atalak ditu, norbanakoen eta enpresen iragarkiekin.

- **Etxebizitza.** Salgai, errentan eman, errentan hartu, pisua konpartitu...
- **Motorra.** Salgai.
- **Garajeak.** Salgai, errentan eman, errentan hartu...
- **Lana.** Eskaerak, eskaintzak...
- **Irakaskuntza.** Eman, hartu...
- **Denetarik.** Salgai, galdu, aurkitu, eman, harremanak...
- **Bidaia.** Eskaintzak.

Helbidea

- www.iragarkilaburrak.com

Lotutako atariak

- **Azpeitia.** uztarria.iragarkilaburrak.com
- **Lasarte-Oria.** txintxarri.iragarkilaburrak.com
- **Urretxu-Zumarraga.** otamotz.iragarkilaburrak.com
- **Elgoibar.** elgoibarren.iragarkilaburrak.com
- **Soraluze.** soraluze.iragarkilaburrak.com

- **Behe Bidaso.** bidasoamedia.iragarkilaburrak.com

- **Uribe Kosta.** ukberri.iragarkilaburrak.com

- **Oarso.** oarsoaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

- **Tolosaldea eta Leitzaldea.** tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

- **Busturia.** busturialdeko hitza.iragarkilaburrak.com

- **Lea-Artibai eta Mutriku.** 11barri.iragarkilaburrak.com

- **Urola Kosta.** urola-kostako hitza.iragarkilaburrak.com

- **Donostia.** irutxuloko hitza.iragarkilaburrak.com

- **Goierri.** goierriko hitza.iragarkilaburrak.com

- **Zumaia.** baleike.iragarkilaburrak.com

- **Gasteiz.** geugasteiz.iragarkilaburrak.com

- **Eibar.** etakitto.iragarkilaburrak.com

- **Larrabetzu.** larrabetzu.iragarkilaburrak.com


- **Proiektuaren ezaugarriak**

- **Atari nazionala.**

- **Irekia eta parte-hartzailea.** Edozeinek sartu ahal izango du iragarki laburra sarean, aurretik izena erregistratuz gero.

- **Elkarlanean sortutakoa.** Tokian tokiko hedabide eta elkarteekin elkarlanean sortutako merkatu erraldoia.

- **Papereko edizioa.** Astean behin, 100.000 aleko zabalkundea, ostiraletan.



Exteetara banatuko dute trafikoan izango diren aldaketan berri ematen duen planoak. Beste hainbat datu ere modu errazean agertzen dira. HITZA

» DATUAK

Trafikoan Eragina

■ **Nafarroa etorbidea.** Hilaren 13tik aurrera, Zubiberritik Foruen etorbidera, eta Nafarroa etorbidetik San Frantzisko pasealekuraino noranzkoan aldaketa. Gernikako Arbolak norabide bakarra.

■ **Biala.** Hilaren 20tik aurrera, bialaren noranzkoan aldaketa, Rondilla kalerako sarbidea mugaturik egongo baita. Zumalakarregi eta Santa Klara ere mugatuta.

■ **Autobusa.** Ibilbide luzekoek zezen-plazan geralekua, eta *erdialde*-tik sartu eta aterako dira; Donostia-Tolosa lineakoak Larramendi, biala, Santa Klara, Zubiberria, Foruen etorbidea, San Frantzisko, zezen-plaza, Nafarroa etorbidea, Kondeaneko aldapa egingo dute. Herriko autobusak, Musika Eskolako geralekua Zumardi Txikian.

Lanen helburua

■ **Uraren kalitatea.** Oria ibaiko eta Zelai erreko uraren kalitatea hobetu nahi dute, haietara ur beltzik ez isurita. Horretarako ari dira kolektorea jartzten. Egun, saneamenduko isurkiak zuzenean ibai eta erreketara joaten dira eta aurreantzean, kolektoreak jasoko ditu, Adunako araztegia eramateko. Beharrezkoa da hau Oria ibaiko eta Zelai erreko uraren eta ibai-ertzen kalitatea berreskuratzeko, eta flora eta fauna kontserbatzeko.

Unerik «zailenera» iritsi dira ur saneamenduaren lanak

Azpiegiturak » Bi aste barru Rondilla kalerako sarrera mugatuko dute, eta bialaren noranzkoa aldatuko dute; lanen %40a dago egina.

INIGO TERRADILLOS

Apirilean hasi ziren Oria ibaiko eta Zelai erreko uraren kalitatea hobetzea helburu duen kolektorea ezartzeko lanak, eta beste urtebetez luzatuko direla hauek azaldu dute obraren arduradunek, hau da, Ura Uraren Euskal Agentziaren ordezkariek. Obra osoaren %40a egina dagoela ere baieztatu zuen atzo eginiko agerraldian Julen Goikoetxeak Uraren Euskal Agentziaren ordezkariek, eta era berean, «unerik zailenean edo konplexuenean» kokatzen direla lan hauek azaldu zuen.

Izan ere, obra honek udalerriri osoari eragiten badio ere, lanik handienak hiru lekutan egingo dituzte: Pedro Tolosa pasealekuak, San Frantzisko pasealekuak eta Araba etorbideak bat egiten duten lekuan; Zumalakarregi eta San Frantzisko pasealekuak bat egiten duten lekuan, hau da, Triangulo plazan; eta Rondilla kaleak eta Barrena kaleak bat egiten duen lekuan. Hala, gune horietan aurrera

doaz lanak, eta hori dela-eta hainbat aldaketa izango dira ibilgailuen trafikoan datorren astetik aurrera.

Norabide aldaketak eta sarrera mugatuak

Hain zuzen ere, astelehenean, hilaren 13tik aurrera Nafarroa etorbideko erreietako baten noranzkoa aldatu egingo dute, Zubiberritik Foruen etorbideraino; eta era berean, aldatu egingo da Nafarroa etorbidetik San Frantzisko pasealekuraino dagoen zatiaren noranzkoa. Halaber, Gernikako Arbolak norabide bakarra izango du: San Frantziskotik sartu beharko da eta hortik ateratzerik ez da izango. San Esteban auzotik edota Renferren tren geltokitik, Pedro Tolosa edo Alliri kaletik aterahalako da.

Bestalde, urriaren 20tik aurrera, Jon Andoni Irazusta kalearen (ibaieren eskubi aldeko biala) noranzkoa aldatu egingo dute, Rondilla kalea ez saturatzeko eta erdialdera errazago heltzeko.

Azken asteetan bezala, Zumalakarregi kalera sartzea baimenduta egongo da, baina, soilik karga lanetarako, taxizaleentzat, garajeetara joateko eta erosketa azkarra egiteko. Zirkulazioak bi noranzkoak ditu. Bestalde, Rondilla kalera soilik karga lanetarako, garajeetara joateko eta erosketa azkarra egiteko sartu ahaliko da. Halaber, Santa Klara kalean, Donostiako noranzkoan, zirkulazioa mugatuta egongo da, eta kasu horretan, soilik erabili ahaliko da Alde Zaharrera, Asuncion klinikara eta Izaskunera joateko.

Aldaketa hauek lanak amaitu arte iraungo dutela adierazi dute, «baina posible da hainbat zonaldean lehenago amaitzea, eta pixkanaka normaltasunera bueltatzea».

Autobusean ere eragina

Obrek autobus ibilbidean eta geralekuan ere eragingo dute. Aldaketa handienak herri arteko autobusentzat izango dira. Ibilbide luzea egiten dutenek zezen-plazan izango dute geralekua eta *Tolosa erdialdea* izeneko irteeratik sartu eta aterako dira. Donostia-Tolosa lineakoak Larramenditik sartuko dira eta zezen-plazatik gero, autobiarra irtegingo dira.

Herriko autobusari dagokionez, Musika Eskolako geralekua Zumardi Txikian (Santa Klara) jarriko dute. Halaber, geralekuetako markesinetan, informazio zehatza jarrita egongo da ibilbideei buruz.

Ibilgailuen aparkalekuan, bestalde, oso aparkaleku-plaza gutxi kenduko direla adierazi du Udalak.

Irakokizunak eta kexak zabaltzeko bideak

Udalak herritarrek kolektorearen inguruan izan ditzaketen zalantzak argitzeko edo iradokizunak egiteko, 943 31 86 06 telefono zen-


bakia jarri du eskura, eta Udalaren webgunean, hau da, www.tolosakoudala.net-en ere eskura daiteke informazioa. Halaber, tolosar gutzietzi eskutitza bidaliko diete obraren xehetasunak eta helburuak azalduz, eta izango dituen eraginarik trafikoan adieraziz.

Ibaia herriarekin adiskidetzuz

Julen Goikoetxeak azaldu bezala, lan hauekin «ibaia nolabait herriarekin adiskidetzuz lortu nahi da, orain arte bizkarra eman baitiogu». Halaber, epeak betetzen ari direla ere zehaztu zuen, eta hilabete bakoitzeko milioi bat euroko kostua dutela lanak.

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak bere aldetik, obra konplexua, baina beharrezkoa dela esan zuen; «Eusko Jaurlaritzari ari da egiten, eta gu hori nolakudeatu arigara laguntzen, ahahalik eta traba gutxienez sortzen ahaleginduz».





Megiak txokoak, paisaiak, nahiz erretratuak jarri ditu ikusgai Alegian: goian, garbarrak bat, eta paisaiak bat. ENCARNALLEGIA

Kolorea da erregina Megiaren margolanetako herriko erakusketan


Alegia » Encarna Megia Alegian bizi da duela 13 urte eta erdi alegiara behintzat badela dio; jubilatuen tabernan dauka orain erakusketak bat.

NEREARRIBU
Alegia jubilatuen tabernan Encarna Megiaren margolanak dauka ikusgai urri osoan zehar. Duela 13 urte Alegian bizi da Encarna Megia, bere familiaarekin batera. Megiaren erakusketan delgarriak, hasiera batean koloreak dira: biz-bizak dira, eta konbinazio po-

asok daramat. Lehenago banerak margotzen nituen gero salatzeko eta kotoiaren artisaurea ere ezagutzen dut. Plantillak egiten nituen.
Margolan gehinetan paisaiak ikus badaitezke ere erretratuak ere badaude jubilatuenan
Baita horregatik ere kolorea gehiago erabiltzen.
Gaur egun ez du inorekin elasten, baina noizbat margolarien

batekin ikasi izan du. «oinartzeko gauzak ikasteko. Batzuek ere, giza gorputza eta marrazteak ikasten ziren harekin. Dena dela, Alegia-ko erakusketan, hasieran egin zituen margolanak daude ikusgai. Izan ere, orain «abstrakzioa ari naiz lantzen».
Erakusketan dauden margolan gehinetan paisaiak ikus daitezke, baina erretratuak ere bai.
«Erretratuak ez ditut hainbeste erabiltzen, ez ditut teknika gehiegia erabiltzen, baina giza gorputza oso gustuko dut.»

gotzen hasi aurretik lekua prestatu behar da eta zailtasunak egon daitezke bidean». Megiarentzat, margotzeko «erabiltzen zentratzeko balo da».
Jakinmina sortaraten diona
Aroetan esan bezala, Megiaren margolanak oso koloretuak dira, batzuetan argizkari begira egindako koloreak dira, eta bestetan, zuzenean bertatik margotutakoak dira. Hauak sortzeko garaiak ez dira konzistenten behintzat inoren onarritzen Encarna Megia, hasi da: «Horrela ateratzen zaizkit eta gustatzen zaizkidan egi-



Megiaren aurreko etxeko txoko bat da goikoak. ENCANA

Kodroak sortzeko garaiak ez dira konzistenten behintzat inoren onarritzen
ten dut. Orokorrean, marrazkiak, haurren marrazkiak, marrazkariak, eta bestek egiten dituen egiten ari direla begiratzen ere gustatzen zaizkidan. Jakinmina sortaraten didan gutxiatik ikustea gustatzen zaizki.
Horregatik, erakusketan paisaiak gizon, erretratuak ere aurki daitezke, eta baita tolo ezberdinetan hondartzak, mendiak, garbarrak, mitxoketak, azoka arbarriak, azoka penarriak, azokalek, bat... Guztira 12 margolan daude ikusgai nahiz zailgi.
Esan bezala, margolan hasek ikusgai urri osoan zehar izango dira Alegia jubilatuen tabernan, asteartetik igandera bitarte, eta tabernaren ondorengiaren bitartean (goizez ere bai).
Fonologia. Datuoren eguneratzea TOLOSALDEKO ETXETARTEAREN HITZAREN webgunean, www.tolosaldeko-hitza.com helbidean aurkeztu da. Momentuz, lururako kilometroetarako eta Tolosako kilometroetarako egin zituzten kantak dituen erakusgai Eskualdeetako taldeen kantak sar-tzeko asmoa dugu, eta zuek gustura nahi duen aldian entzuteko aukera izango duzue. Bitartean, goza ezazue dauden bitartekin, orimen politik saguru etorri-ko zuzkizkua burura... Bestetik, Begiradak atalean dauzkagun musika talde ezberdinei buruzko in-formazioa aurkituko duzue.
www.tolosaldeko-hitza.info



Erretratu bat ezkerrean, eta eskuinean, paisai bat, kolore biziekina. ENCANA

Sega apustua izango da gaur Anoetako Argindegiko zelaietan
EREDAKOZIOA
Gaur, Anoetako Euskal Jaizaren baitan, Argindegiko zelaietan sega apustu berezi bat izango da. Parte-hartzailek bertakoak dira: Urri-riko Itziar (Irujo) eta Añabaitzako Jokin (Garmendia) dira, haien zorrotzailekin batera.
17:00etan hasiko da, eta jokoan diagoen dirua 50 euro da. Zorrotzaileak: Barrundio gaitze eta Bi-deondoko zaharra dira. Ondoren afariak izango da.

Gaur Ezker Batuak zuzendaritza berria aukeratu du
EREDAKOZIOA
Autonon Kartera auzoketarra eta Dutille Agirre zabalgi dira hautagaiak. EBko zuzendaritza berri-ko hautagaiak: Kartera gaur egun Gipuzkoako Ezker Batuko koordinatzailea da. 124 delegatu izango dira bozkatzen.
Karterak EB indartu egin nahi du Gipuzkoan, batez ere, presen-tzia ez duen lekuetan, eta etorkizun-ean EB ezker eraldatzailearen erreferentzia izatea nahi du. Hone-tarako harremanak ekin du nahi ditu gizarte eragileekin eta sindikatuekin.

Bihar azoka berezia
Bestalde, bihar azokan eskualdeko hainbat postu izango dira. Artisauei dagokienez, J. L. Larrarte anoetarra (egurra), Marijo bidaiaria (beitza), Igor Obeo inurra (beitza) eta Aneiza Munia tolosarra (geranika), Iruzu larraldarra (egurra). Anoetako Otero kooperatibak Kartera (Euskal pilota) egongo dira; berritako produktue-tan, Bidanako Ekola Baserria (Euskal Txerria), Anoetako Aspizua (Oroak), Errezilgo produktuek, Anoetako Agerre (barazkiak), Anoetako Barrundi (barazkiak), Anoetako Ezeberri (barazkiak), Anoetako Sarobe (barazkiak) eta Anoetako Argindegi (barazkiak) izango dira. Bestalde, Iruzu lokoak pintxoak, jarriko dituzte, eta EHNA tramitatzeko aukera ere izango da.
10:00etan hasiko da, eta goiz guztian, hainbeste erakusketak eta Lotzto musika eskolakoak izango dira, bestek beste.

Goio, epaitegian ez agertzearen aplikatze arrikua
EREDAKOZIOA
Jon Goio Batsuneko murriztu tolosarrek ez zuten Auzitegi Nati-onalaren deia erantzun. EHAKREN bigarrena-ko prozeduraren bitan deitu zuten Batsun Garzo epaile-ak bertan agertzeko, duela filiate bat.
Erakoi haren bitartean eragoz- gabe dadasalaratu du Goio, «hain-ta eurogindua aplikatzeko arrikua izan».

LALBI ALTZARIAK
Salako muebleetan aukera zabala
Etorri ZUREA diseinatzaera
Garzia Galdezar, 1 - HERNANI - Tel. 943 557 154 - Fax: 943 552 082 - mueblesalbi@euskalnet.net

Villabona opika
2008 Umeentzako kanpaina berezia
Kale Berria 23A
Villabona
Tel.: 943 11 18 40

zure-iragarkia tolosaldeketik eta leizaldeketik euskal herrira
tolosaldek ohitza. iragarkilaburrak.com
iragarkia jarritze www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com/9434655695/Arabak eta, Salbea + Tolosa / Herriko plaza 1 - Leiza webgunean, ostraleroko Euskal Herri osoan paperezko edizioan eta HITZA egunkarian argitaratuko da

Iragarkilaburrak
LANA
• Zerbizaria. Asteburutarako zerbizaria behar dugu. 650727730.
• Kamara. Anoetan esperientzia duen kamara bat behar dugu. Igdenteetan: 650 043139.

SALGAI
• Deposito. Inoxidablezko depositok sagardoaren zatitzaileak dituzte. 260 litrokoa da. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 652 757 51 telefono zenbakira.

Bertso saioa
Bertsolariek: Maialen Lujanbio, Susaia Colina, Bionte Gorostidi, Aitor Mendiluze, Jon Maia eta Beñat Gaztelumendi, Gai-jartzailea: Saroi Jauregi.
Urriak 12, igandea • 17:30ean Tolosako Leidor Zinemaren

Kalera ezkerrean auzitegiaren bitartean
minuzialaguna behar duzu

Gaur ekingo diote San Estebango Kultur Asteari, mendi ibilaldiarekin

Kultura » Ekitaldi garrantzitsuenen artean, bihar XXI. Kros Herrikoa jokatu da; ibilbidean aldaketak izango dira.

ERREDAKZIOA

San Esteban auzoko XX. Kultur Astea prestatzen aritu ondoren bihar ekingo diote hainbat ekin-tzekin. Datorren aste igandera arte izango dira ekitaldiak. Tontor San Esteban Auzokide Kultur Elkarteak antolatu du Kultur Astea, auzotar guztien gustoko izan- godelakoan.

Haur, gazte nahiz helduentzako egitaraua prestatzen saiatu dira aurretan ere. Gainera, aipatzekoa da, akitaldi asko urteroko ohitura bilakatu direla, eta nahiko finkatuta daudela. Horren adibide dira: Herri krosa, patata tortila txapelketa eta mus txapelketa.

Eskualdeko kros garrantzitsuenetakoa

21. aldiz, aurretan ere Herri krosa egingo da San Estebango Kultur Astearen baitan. Lasterkariak 11:00etan abiatuko dira auzotik,



Kultur Asteko ekitaldi jendetsuenetakoa da Herri Krosa. Irudian izako irabazleak, NAIARA GARCIA

» SAN ESTEBANGO XXI. KULTUR ASTEA

Urriak 11, gaur

■ **09:30.** Auzotik abiatuta mendi ibilaldia egingo dute haur eta helduek.

Urriak 12, bihar

■ **11:00.** Tolosako XXI. Herri Krosa.

Urriak 15, asteazkena

■ **20:00.** Diaporama: *Erleak gure sendagile*, Luis Mari Intza erlezai-naren eskutik.

Urriak 16, osteguna

■ **19:00.** VI. Patata tortila lehiaketa. Ondoren, luntxa.

■ **22:30.** Antzerkia: *SOS temible* antzezlan Txiflano Inproduccion- nes antzerki taldearen eskutik.

Urriak 17, ostirala

■ **16:00.** Altxoraren bila.
■ **16:00.** Mus txapelketa.
■ **16:30.** Haur jolasak.
■ **18:00.** Buruhandiak.
■ **19:00.** Txokolate jatea izango

da. Hau Bonberenea txarangak alaituko du.

■ **24:00.** Kantaflor taldearen kontzertua.

■ **Ondoren.** DJ Jokin.

Urriak 19, igandea

■ **09:00.** Diana herriko txistulariekin.

■ **10:00.** Tzikitixa auzoko baserrietan.

■ **11:00.** Meza nagusia ospatuko da auzoko hildakoen alde. Elizkizu-

eta gutxi gorabehera urteroko ibilbide bera egin beharko dute. Aldaketa bakarra izango da, Kolektorearen obrak direla eta, Araba etorbidearen atzealdetik igaroko direla korrikalariak.

Irabazlearentzat ez ezik, korrikalari zaharrenarentzat ere izango dira sariak. Baita, helmugara azkena aliegatzen den parte-hartzailearentzat ere. Honek, dozena erdi pastel eramango ditu etxera. Iaz 380 korrikalari hartu zuten parte lasterketan, eta horietatik asko eskualdekoak izan ziren. Dena den, emakumezkoetan nahiz gizonezkoetan garaileak kanpokoak izan ziren. Mutiletan, Bilboko Josu Amutio eta nesketan, Donostiako Amaia Arana. Helmuga lehen zapadu zuen Tolosarra berriz Jabier Colmo izan zen. Gehienek 30 minutu inguru behar izan zituzten.

na San Frantzisko parrokian izango da.

■ **12:00.** Toka txapelketa gizonezko-emakumeentzat auzoko txarangak alaituta.

■ **14:00.** Auzoko babarrun jatea egingo da. Honen ostean, Goterak tolosarraren omenez, Tontor elkar- teak berari eskainitako abestia aurkeztuko dute.

■ **Ondoren.** Jaiei amaiera emateko, dantzaldia Koxkorrena orkestrarekin.

Hamabi urte eta gero, berriz, Pilar eguneko saioa

Bertsolaritza » Udalak ohitura berreskuratzeko erabaki du; saioa bihar izango da Leidorren, 17:30etik aurrera.



Eskualdeko bi bertsolari eta kanpoko hiru ariko dira bertsotan. HITZA

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Bertsotzale Elkarteak eta Lankuk, Tolosako Udalaren laguntza eta babesarekin, Pilar Egune-ko bertso jaialdia berreskuratzeko ahalegina egin dute. Honen- bestez, bihar, Leidor antzokia bertsotarako plaza bihurtuko da 17:30etik aurrera.

Garai batean, urteroko hitzor-

dua zen Tolosako Pilarikako jaialdia. 10 urte baino gehiago bada saio hori antolatu ez dela. Tolosan, bertso plazen aldetik hutsune bat zela

ikusirik, saio hau berreskuratzeko aukera proposatu eta hara, aurretan berreskuratu egingo da.

Aipatu bezala, Leidorreko are-

toan izango da, bihar arratsaldean, 17:30etik aurrera. Bertan, eskualdeko nahiz kanpoko bertsolari ezagunak izango dira lanean: Aitor Mendiluze, Jon Maia, Maialen Lujanbio, Sustrai Kolina, Beñat Gaztelumendi eta Bixente Gorostidi. Gai-jartzaile lanetan berriz, Saroi Jauregi ariko da.

Sanjoanetan, lehen urratsa

Tolosan, bertsolaritzaren inguru-ruan hutsune handia egon da azken urteetan. Hau konpontzeko asmoz, San Joan jaietan bertso saio bat antolatu zuten Zerkausian. Bertan, eskualdeko lau bertsolari etagoierritar bat aritu ziren jende-

aren barre eta txaloak lortu nahian. Ekitaldi horrekin, sanjoanetako egitarauaren ohikotasunetik atera nahi izan zuten, eta «gure kulturaren horren garrantzitsua den bertsolaritza berriro indartu», azaldu zuten orduan antolatzaileek. Orain, beste pauso bat eman nahi izan dute, Pilar Eguneko bertso saioa berreskuratzearrekin.

Udaleko Euskara Batzordekoen ustetan, «bertsolaritza, euskaren erabilera areagotzeko bide egokia da». Honekin lotuta, azken urteetan, hiriko hiru ikastetxeetan *Ahokotasuna eta bertsolaritza* izenburupean, genero hau landuz joan dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Bi leitzar eta aresoar bat Lehen Mailako Lau t'erdiko Txapelketan

Pilota » Oinatz Bengoetxea eta Mikel Olazabalen elkarren aurka ariko dira eta Abel Barriola final-laurdenetan sartuko da.



Oinatz Bengoetxea, Abel Barriola eta Mikel Olazabal Lau t'erdiko txapelketan ariko dira. HITZA

ASIER IMAZ

2008. urteko Lau t'erdiko Txapelketa atzo hasi zen jokatzeko. Lehen partidaren Sebastian Gonzalez eta Julen Retege ari ziren lehia. Eskualdeko pilotariei dagokionez, bi leitzar eta aresoar bat ariko dira aurtengo txapelketan: Oinatz Bengoetxea, Abel Barriola eta Mikel Olazabal.

Final-hamaseirenak

Oinatz Bengoetxea Mikel Olazabalen aurka. Leitzar aresoarren aurka. Buruz-buruko txapelketa, Bigarren Mailako Lau t'erdiko txapelketa deitzen dute.

Partida irabazten duen pilotariak final-zortzirenetan Koka edo

Berasaluz IX.a izango du aurrean.

Barriola final-laurdenetan

Iazko txapelketa zuzenean final-laurdenetan aurkitzen da. Abel Barriolak azaroaren 2an jokatu du txapelketako bere lehen partida beraz. Finalari dagokionez, abenduaren 7an, igandearen jokatuko da.

MIKEL OLAZABALEN LEHENENGO TXAPELKETA

Iaz Bigarren Mailako Lau t'erdiko Txapelketaren finala jokatu zuen Mikel Olazabalek. Aurten Lehen Mailako Txapelketa bat jokatuko du lehen aldiz. Iaz aurrean, partida ostean Bigarren Mailako Txapelketa suertatu zen Iñigo Diaz zuen Olazabalek. Aurten, lehen partidaren, Buruz-buruko txapelketa handia izango du Aspeko pilotariak, Oinatz Bengoetxea hain zuzen ere. Urtebetean goitik behera aldatu zaio bizitza profesionala 22 urteko Mikel Olazabal gazteari. Enpresak pilotari gazteen aldeko apustua egin dute Lau t'erdiko Txapelketa honetan eta aresoarrak bere dohaiak erakusteko aukera bikaina dauka atzo hasi zen Lau t'erdikoan.

Perurenak ohorezko aipamena jasoko du

Leitza » Inaxio Perurenak harriekin erakustaldia eskainiko du bihar Poban (Araba) ospatuko den azoka berezian.

A. IMAZ

Pobes (Araba) herrian Arabako babarrun pikartaren XIV. azoka ospatuko da bihar. Bertan 1.400 kilo babarrun jarriko dituzte lasgai. Pobeseko egun handi honetan,

bi leitzar egongo dira: Iñaki eta Inaxio Perurena.

Ohorezko aipamena

Iñaki Perurenak Arabako Ohorezko Babarrun Pinkarta-ren aipamena jasoko du biharko azokan. Titin III.a pilotaria ere saritua izango da ekitaldi berean.

Bestalde, Inaxio Perurenaharri-jasotzailek erakustaldia eskainiko du Arabako pinkarta babarrunaren inguruan bihar Poban egingo den jaialdian.

Anjel Arrospide finaleko txartelaren bila gaur

Leaburu-Txarama » Urrezko Aizkolari Txapelketa Ligaren jardunaldia jokatuko da gaur 18:00etan Agurainen.

A. IMAZ

Urrezko Aizkolari Txapelketa Ligaren jardunaldi berri bat jokatuko da gaur. Bertan Leaburu aizkolaria egongo da, Anjel Arrospide hain zuzen ere.

Bigarren sailkatuaren bila

Aguraineko (Araba) Santa Maria plazan, gaur 18:00etan, hiru aizkolari ariko dira lehia, Urrezko Aizkolari Txapelketa Ligaren finalerako bigarren txartelaren bila. Floren Nazabal zain izango du bigarren sailkatuaren bila. Hiru aizkolari hauek honakoak izango dira: 19 punturekin aurkitzen den Donato Larretxea, 18 punturekin dagoen Anjel Arrospide eta sailkatzeko aukerarik ez duen Juan Jose Lopez.

Aste bat gehio, aste bat gutxio...



» Herrira begira

Aimar Sagastibelza
Futbol jokalaria

Nahi edo ez nahi, asteburuko partidue irabazten den hurrengo asteko entrenamenduk askoz eramangarrikoak izaten diekirol taldeetan. Ba esandako hauxe

pasatu zaiu jardunaldi hontan, earki kostata izandu bazen e partide aurreateatzea lortu baigiñun. Etxen jokatutako partidun bi eta hutsako emaitzaz irabazi giñun. Ondorioz, hiru puntu hokin erdialdeko postutan jarri ga ligan, leku lasaien. Entrenamenduri dagokionez, nahiko exigitek izan badiere, garaipenak ematen don animo edo lasaitasun berezi horrekin ondu ga, eta oso eramanerretxa izandu da astea.

Nei dagokitenez, zoritxarrez konbokatortatik kanpo gelditu nitzen. Aurreko asten esan bezela, oso zalle dau talden sartzea eta zo-

ritxarrez nere postun jokatzen don taldekiden bat erori arte (lesion bat, santzion bat) itxoin in behar. Nikuste denbora dexente emango dola honek. Beño beno, oso gustoa aurkitzen naiz eta nahiko ongi ainaiz entrentzen, eta honnek morala altu mantentzei. Oain arte bezelako animo ta gogoakin seittu behar.

Futbola alde batea utziz ze esan, ba urrie mantxo mantxo aurrea diela eta nola ez, ehiztarik eunetik eunea sutzugo... Eta hoin tarten ni, uso ehiztari amorratue, eun pare bat libre noiz emango dizkiun de-seatzen; Leitzea joan eta biajea

aprobetxatuz mendire bueltatxon bat emateko. Ehize gauze kuriosoa da, kriston espektatibak itten die eunero ta ia-ia beti desilusio latzak hartzen badiere, hurrengo eunea berriz hortxe eottenga munduko esperantza guzikin. Nere ustez, obligazio modun jarriko balue ez giñekela hainbeste jende joanen...

Azkenik, hasiberri den lau terdiko pilotako txapelketan parte hartuko duen Oinatz Bengoetxea, Mikel Olazabal eta Abel Barriolari suerteik onena deseatzu bukatu nahi nuke. Izane, eztauket ifongo dudek zeresan handie emanen duela txapelketa hontan e, eta gehio esanet, etzait iruitzen txapelak Leitzetik urritu bukatuko donik.

Nahiago nuke asmatuko banu!

Laburrak

Tolosako eta Ibarroko ezker abertzalearen kideei

IBARRA » Araceli Ortizen lagunek, Tolosa eta Ibarroko ezker abertzalearen kideei deialdia egin diete. Gaur 12:30ean Araceli Ortizen erraustak Ibarroko plazan dagoen zubitik zabalduko dituzte eta bertara agertzeko deia luzatu diete.

Urbasara bizikleta martxa bihar 08:30ean

IBARRA » Bai Euskal Herriari eta Haitzetan Raju mendi taldeak bihar bizikleta irteera antolatu dute Urbasara, *Euskal Herriaren zehar, geurea ikurrina!* lelopean. Ibarroko plazatik 08:30ean irteerako dira eta bizikletak kamioi txiki batean eramango dituztela azaldu dute antolatzaileek.

Bertso Afaria antolatu dute herriko gazteek

GAZTELU » Urriaren 18an bertso afaria antolatu dute Gazteluko gazteek, herriko elkartean laguntzarekin. Otamendi, Muñoa eta Goigana izango dira kantuan. Izena herriko elkartean eman behar da urriaren 16a baino lehen.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarra. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Izurr. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutz Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

RENFE: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzar autobus: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tosaldekohitza.info.
Webgunea: www.tosaldekohitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tosaldekohitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tosaldekohitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tosaldekohitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tosaldekohitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tosaldekohitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tosaldekohitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tosaldekohitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Villabona.** I. Argazki Rallya. 08:30etik 09:30era izen-ematea Errebote plazan eta 13:00etatik 14:00etara argazkiak entregatu leku berean.

Azoka

■ **Tolosa.** II. Stock azoka Beotibar pilotalekuan Igarondo merkatarik elkartek antolatuta. 15 dendak hartuko dute parte. Sarrera doan.

Musika

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Bandaren udazken kontzertua Zerkausian 19:30ean.
■ **Tolosa.** Dogma proiektu eta Turko's band taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Antzerkia

■ **Altzo.** *Magia teilatuetan* antzez-lana 17:00etan Lizarbeko gelan. Txalo antzerki taldearena da eta Begoña Bilbao da zuzendaria (musika: Joxe Urrejola). Aktoreak: Iraitz Lizarraga, Asier Kidam eta Jorge Santos. Magiarekin lotutako ikuskizuna da.

Zinema

■ **Tolosa.** *El niño con el pijama de rayas* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta 22:00etan eta etzi, astelehenean (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 675118.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Txikienek ere badakite jaiez

Tolosa » Atzo ekin zieten Berazubi auzoko jaiei; gaur eta bihar ere izango da zer gozatua, jokoak, janaria eta musika dira protagonistak.

ERREDAKZIOA

Petardoen hotsak eman zien atzo hasiera Berazubi auzoko jaiei. Atzo txikia izanagatik giro ezin hobea izaten da urtero Berazubiko jaietan. Ondoren, aurtengo egitarauaren baitan zegoen berriruntzetarik bat izan zen, zahagi sagardoa, hain zuzen. 2 kupel jarri zituzten eta norberak afaria eman zuen. Ondoren Bocio, Peachy Joke eta In de Kitzen taldeen kontzertuak izan ziren entzungai. Giro bikaina jarri zuten bertan.

Tartean etenaldi bat ere izan zen baina ia berreskuratu zituzten auzotarren euren jaia. Gazte lokalako gazteak buru belarri aritu dira guztia biribila izateko. 25 gazte osatzen duen lagun koadrilak antolatuta, atzo hasi eta bihar arte iraungo duten jaia.

Gaur ere ekitaldi baterio eguna izango da. Eguerdian parte hartuko diote berazubitarrek jaiari, patata tortilla txapelketarekin eta txakoli dastaketarekin. Paella jatak jarraituko die eta ondoren ume-jolasak izango dira, 16:00etan. Aldi berean, mus txapelketa jokatu dute helduek. 17:30ean ipuin kontalaria izango da eta 20:00etan, berri, luntxa emango diete Berazubiko bizilagun guztiak.

Gaualdean berriz ere musika izango da protagonista Tolosako auzoan, Disko Festarekin eta DJ Aizpunekin. Eta ia espero baino



Antolatzaileek banan-ban suziriak bota zituzten jaiei hasiera emateko. E.E

hobe atera zen gauzetako bat urten ere mantendu egingo dute, hau da, bihar goizeko txokolatada; «jendeak asko eskertu zuen, eta horregatik eskainiko dugu berriro».

Aurtengoan umeentzat hain bereziak izaten diren barrak hutsumena izango da. «Kolektorearen lanak direla-eta aurtengoan ditugu ekarri», azaldu zuten antolatzaileek.

Ziur hau ez dela arazoa izango Berazubira gerturatzen direnentzat.



Gaueko kontzerturako azken prestaketak egiten aritu ziren musikariak. E.E

A Agurrak



Urte askoan!

Uma Otezabal Garcia (Amasa). Gaur 3 urte. Muxu handi bat zure aitona eta amonaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker,

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

